

ESKORIATZA HISTORIAN ZEHAR

Eskoriatza Leintz Haranean dago. Haran hau Gipuzkoako hego-mendebaldean kokatua da, Deba ibai arroaren burualdean. Gaur egun lau dira Leintz Harana osatzen duten udalerriak: Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga.

Eskoriatza da, lurraldeari dagokionez, haraneko handiena. 40,41 km² ditu azaleran eta Deba ibaiaren ondoan dagoen hiriguneaz eta beste zazpi elizate edo baserri giroko auzunez osatua da. Hauek dira: Apotzaga, Bolibar, Gellao, Marin, Mazmela, Mendiola eta Zarimutz.

Eskoriatzako udalbarrutian, gizakia hemen antzina-antzina-tik izan delako aztarna garrantzitsuak daude. Aita Barandiaranek Aitzorrotzen aurkitutako historia-aurreko aztarna materialak dira horren lekuko, Kristo aurreko 4.000 edo 5.000. urteko zat har genitzakeenak, baita geure mendietan ditugun ehorzketako monumentu megalitikoak ere, aipagarrienak Mugarriluzeko zenbait tumulu eta menhir izanik. Azpimarratzekoak dira Bolibar elizateko Eraña auzo inguruan, 1972an aurkitu ziren urrezko bi eltze ere, Kristo aurreko 800. urte inguruan garatu zen kulturaren barruan sar genitzakeenak.



Noizbehinka Eskoriatzako hirigunean aurkitu izan diren zeramika erromatarraz gain, ezin daiteke esan egiaz lurralde hauetan erromatarren presentziarik izan denik.

Eskoriatzari buruzko lehen aipamen idatzia, Nafarroako erregeak Gaztelako errege Alfontso VIII.ari eman zion gazteluen zerrendan agertzen da, errege honek 1200. urtean Gasteizko plaza hartu ondoren. Gaztelu hauetako bat Aizorroç izenekoa zen, oraingo Aitzorrotz mendian zegoena; oraindik ikus daitezke antzinako hormen hondakinak eta ura hartzeko patina.

Garai hartan Leintz Harana Aizorroçia izeneko gotorleku antzeko batean kokatua zegoela uste da, Deba arroaren alde-

rik gorenean zegoena. Izen horretatik etorriko da, beharbada, Eskoriatza izena.

1260an, errege Alfontso X.ak Mondragoe izena eman zion Arrasate zeritzon hiriguneari. Bere izaera berezia zuen hiri berri honek Leintz harana kontrolatzeko zeregin nagusia zuen, Gaztelaren eta itsasoaren artean komunikatzeko ingurune garrantzitsua baitzen.

1331an, errege Alfontso XI.ak Mondragoeko forua eman zion Leintz Gatzagari. Honela, bere burugain zen hiri bihurtu zen, Leintz haranetik askaturik...

Hainbat urte geroago, Garagartza, Udala, Gesalibar, Uribarri, Isasigaña eta Oleaga auzuneak Mondragoerekin elkartu ziren, Leintz haranetik askaturik.

Honela, XVII. mendera arte Leintz Harana osatuko duten auzuneak hauek izango dira: aozaratza, apotzaga, areantza, aretxabaleta, arkarazo, bedoña, bolibar-ugazua, eskoriatza, galar-tza, gellao, goroeta, izurieta, larrino, marin, mazmela, mendiola eta zarimutz.

1370eko urtarilaren 10ean, Gaztelako errege Enrike II.ak Beltran Gebarari eman zion Leintz Harana, Gebaratarrei esker-tzearren, Gaztelako koroa lortzeko bere anaia Pedroren aurka-ko gerran emandako laguntza.

Gebaratarren mendekotasun hau izango zen oztoporik handiena leintzarrek Gipuzkoarekin bat egiteko. Leintzarren elkar-goia 1397an sortu zen. Elkargo honen eta Gebarako Jaunen interesak erabat kontrakoak ziren: Gebaratarrek Leintz harana Arabako Elkargoarekin bat egin nahi izan zuten XV. mendean, Elkargo hura beren mende baitzuten. Gipuzkoako Elkargoko hiriei, ordeia, Ahaide Nagusien botere eta eraginetik libre izan-go zen lurraldea eratu nahi zuten.

Haraneko biztanleek ongi zekiten, Gebaratarren jurisdikzioan egon zitezen bitartean, ez zutela loriuko Gipuzkoako lurraldeekin bat egiterik. Gipuzkoarekin bat egiteko prozesua luze eta zaila izan zen.

Lehenbiziko ahalegina 1457/1458 urteetan egin zen, oinaztarren eta ganboatarren arteko gatazka ugarien artean. Gipuzkoako Elkargoak bat-egite hori bultzatzea eskatu zion Gaztelako Enrike IV.ari. Horretarako bi arrazoi jartzen zituen: Gatzagaren eta Leintzen kokapen geografikoa, eta lehenago ere bi lurralde hauek Gipuzkoako Elkargokoak izana.

Oñatiko kondea eta Arabako Elkargoa kontra zirela, behin-behineko bat-egitea 1475ean egin ondoren, Gipuzkoako Batzar Nagusietan gauzatu zen behin betiko bat-egitea, 1497ko apirilaren 29an Usarragan egin ziren Batzar Nagusietan, Errege Katolikoek Leintz Haranak Gipuzkoako Elkargoarekin bat egin zezala agindu ondoren.

Zenbait urte elkarrekin eginik, garai hartan Leintz Harana osatzen zuten herri nagusien arteko ezin konponduak sortu ziren. Hainbat borroka eta auziren ondoren, 1630eko urtarrilaren 31n, Felipe II.ak, errege-agiri batez, Harana bi jurisdikzio burujabetan banatzea agindu zuen.

Banatze honek Gobernuaren eta Justiziaren arloetan zuen eragina; aurrerantzean bi udal eta bi alkate izango ziren. Larreak, urak, bideak guztienak izango ziren, hamazazpi herrien jabetza, baita intsigniak eta ohoreak ere (zigilua, armarriak, banderak etab.). Gainerako elizateak jurisdikzio batari edo besteari lotuak geldituko ziren. Hala ere Arkarazo hasieran Eskoriatzari lotua egon zen, baina hainbat gatazka tarteko, behin betiko Aretxabaletari lotua gelditu zen.

XVIII. mendearen amaieran burutu zen Madrildik Irunerako Errepidea. Gertakari honek haranaren eta batez ere Eskoriatzaren aurrerapen handia ekarri zuen, haranean zehar



luzetara doan bidean inbertsio handia egin zelako, 22 oineko zabalera baitzuen. Frantziatik Gaztelako goi-ordokiraino doan bide nagusia dela esan nahi du horrek.

Haraneko barne-borrokaz gain, Euskal Herriak orokorrean izan zituenak ere jasan behar izan zituen Eskoriatzak.

XIX. mendearen hasieran frantsesak sartu ziren eta haien soldaduak 1813ko herriko jai nagusien aurreko egunetan erretiratu ziren. Eskoriatzako ekonomian kalte handiak eragingo zituela pentsa genezake, gerra haien gastuak ordaintzeko hainbat zerga ezarriko baitzitzaizkien eskoriatzarrei.

Horrelako zerbait gertatuko zen lehen gerra karlistan ere, Eskoriatzan benetako gerrari-espirituz bizi izan baitzen. Eskoriatzan eta inguruetan borroka latz eta odoltsua izan zen



1836ko urtarrilaren 16an eta 17an. Eskoriatzak leku aparta izan zuen gerraren erretagoardian. Horregatik, soldaduen joan-etorri eta atzera-aurrerak ugariak izan behar eta, beraz, zama astuna udal-ekonomiarentzat.

Hauek eta antzeko premiek eraginda, Eskoriatzako ekonomiak, gehienbat nekazaritzan, abeltzaintzan eta baso-ustiapenean oinarrituak, asko sufritu zuen. Honen ondorioetako bat, XVII. eta XVIII. mendeetan etengabe izan zen herri-basoen galtzea. Harana bitan banatu zen garaian ikaragarritzko ondasun ekonomikoa zuen bere herri-basoetan, baina hori apurka-apurka galduz joan zen, lur-sail guztien gain jabetza pribatua nagusituz.

XX. mendearen hasieran, salerosketa-ekintza berriei hasiera eman zitzaien eta berrogeigarren urteaz gero, industriako tailer txikiak ugaritu ziren. Industriaren garapena oso garrantzitsua izan da urte hauetan; horregatik, gaur egun eskoriatzar guztien % 65a industrian ari da.

Joan Karlos Bengoa